

Aretxagazeta

KARA PAIXOA

**Ogizko
opari goxoa
besoetakoarentzat**



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Inauteriak
argazkitan /8**

GIZARTEA

**Juan Maria Uriarte
gotzainaren bisita /9**

LEINTZ GATZAGA

**Inauteriak
argazkitan /10**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 16
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 17
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 85 83

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide Elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi Geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
--------------------	--------------

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:00

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: AZATZAN
Domekak: 11:30

MENDIOLA
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domekak: 12:30

OHARRAK

LUZ ARDIDEN-ERA IRTEERA
Murruko Mendi Elkartek Luz Ardidenera eski irteera antolatu du. Egonaldia otsailaren 23an eta 24an izango da. Izena emateko, hurreratu Murruko Mendik Elkartek Duranan duen egoitzara, martitzenean, 19:00etatik aurrera.

1950 ETA 1951KOEN AFARIA
1950. urtean eta 1951ko urtarrila eta otsailen jaiotako herritarrek kinto afaria egingo dute Taberna-berri jatetxean hilaren 23an. 19:30ean, hildakoen aldeko meza emango da eta ostean poteoa egingo da. Parte hartu gura duenak Taberna-berri jatetxean eman beharko du izena otsailaren 17a baino lehen.

PINTURA IKASTAROA
Idoia Elexpuru margolariak pintura ikastaroa emango du, Loramendiko Tril emakume taldearen laguntzarekin. Interesatuta dauden guztiak otsailaren 18an, astelehena, udaletxe zaharrean ager daitezela 19:00etan.

ARATUSTE DOMEKAKO ZOZKETA
Koadrila batek aratuste domekan errifa batzuk banatu zituen. Zozketa egin ostean hona hemen zerbaki irabazleak: 26 eta 87. Sariak Kultura etxean daude beraz, bertatik pasatu daitezela irabazleak.

LORAMENDIRENAGENDA

TXAN MAGOA
Gaur, otsailak 15, Txan mago handiak ikuskizuna eskainiko du Loramendiko egoitzan, 22:30ean. Ekitaldia pertsona helduendako izango da, eta ez ume txikiendako.

HITZALDIA
Ganges ibai sakratua izeneko diorama saioa eskainiko du Angel Cuerdak otsailaren 21ean udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ORAINDELA 7URTEARETXABALETAN

Deba ibaia bideratzeko lanak hasi zituzten




Otsailaren 12an eman zitzaizen hasiera ofiziala Deba ibaia uholdeetatik babesteko lanei. Ekitaldian, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako orduko Garraio eta Herri Lanetarako sailburu Jose Antonio Maturana eta Pedro Jaurregi Ur arduraduna izan ziren. Lanak ia urtebete iraun zuten.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Petenadia"

Ganadu ostikada (pluralean, batik bat). **Etim.:** Petain mariscal frantsesa, Munduko I. Gerratean famatu bihurtu zena. *-Mekauben, orrek jaurtzen jittuk petenadak.*




ZORIONAGURRAK



ARETXABALETAKO **Juxe Zuazua**
11n. Zorionak, eta jarraitu hain gazte. Pausokako zure gelako umeak.




ARETXABALETAKO **Anne Paul**
12an, 3 urte. Muxu handi bat eta zorionak, zure familiakoen partetik.



ARETXABALETAKO **Pilar Arrese**
15ean. Muxu handi handi bat eta zorionak! Etxekoak.



ARETXABALETAKO **Gotzone Güemes**
16an. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.



ARETXABALETAKO **Jon Izagirre**
17an. Zorionak eta berrogei muxu lagun guztien partetik!



ARETXABALETAKO **Mirian Iturralde**
17an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko eta lagun partetik.



ARETXABALETAKO **Hermi Miguel**
19an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik!

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto


Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETAKO
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretea edo albuma dohanik !!!

 **Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAKO
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

 **ANDRA MARI**

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETAKO
Tel. 943 79 29 26

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETAKO
943 77 03 08

MartiW

ESTUDIO DE DISEÑO


Bere bezeroen zerbizura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETAKO

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsetan jatzu basuriendako kontenedoriek jartie?




LOLA ARMENTIA
Jubilaue



PATXI ZUBIZARRETA
Jubilaue




BEGO ARENAZA
Langillie



LORENZO ANDONEGI
Jubilaue



JOSEFA HABA
Jubilaue



JAIME MUJIKA
Langillie

Oso ondo pentsetan jat, lehen baiño askoz hobeto. Kalie be lehen baiño garbixague egongo da hola: batetik, usain gutxiago, eta bestetik, katuek be gutxiago apurtuko dittue poltsak.

Lehen baiño hobeto. Gure danien atara ahal izengo da basurie, etxien euki barrik. Kontenedoriok, gainera, ondo gertatute egongo die eta ez dot usain txarrik pasetan itxiko dauenik.

Basurie balkoien euki biherrien atarateko askatasune eukittie ondo dago. Baiñe arauk ez badittugu erresetetan, ez die ondo ibilliko, eta usaiñek eta gauzak darixola egongo die.

Ondo pentsetan jat. Herri-tarrondako bentaja gehixago dauko sistema barrirek. Norberari komeni jakonien atara eta listo. Dana dala, biher dan moduen bete biherko die arauk.

Ondiokan ez dittut ikusi, baiñe oso idea ona pentsetan jat. Nik neuk, behintzet, nahixago dot. Hola, etxien euki biherrien basurie usain txarra botaten, kontenedorera eruengo dogu.

Ondo. Kaliek be garbixague egongo die eta txakurrek eta katuek basuretan ibilli barrik. Leku batzuetan traba egingo daue, baiñe lehengo sistemie baiño egokixague dala pentsetan dot.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK DENAK DANTZAN Nahiko eztabaida sortu dute aurten-go Santa Ageda mutilek. Hala ere, plazan dantzan egiterakoan erakutsi zuten arreta aipatzekoa da. Gurrpil-aulkian ibili den mutilak hankekin ez baina aulkiarekin ederto egin zuen dantzan, eta haren kideek, gainera, dantza eskaini gura izan zioten. Neska atera beharrean, lagunarendako izan ziren txapela eta dantza. /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 5

KIROLAK / 6

HURRETIK / 7

Karapaixoa, ogizko oparia

Garizuma garaian sartu berri gara eta besoetakoari karapaixoa oparitzeko garaia ere bada.

Luz Ardidenera eski irteera

Murruxiko Mendizale Elkar-teak Luz Ardidenera eski irteera antolatu du hilaren 23rako.

Bego Lekunberri

Bego Lekunberri kantariak azken diskoaren berri eman eta hurretik ezagutzeko aukera eman digu.

ASTEKODATUA

30

ZAKARRONTZI APURTU ZITUZTEN ASTE BUKAERAN

Datua, egia esan, ez dago zehatz esaterik, baina hortxe ibiliko da. Batez ere, Santa Kurtz, Durana eta Mitarte kaleetako zakarrontzietako ipurdiak izan dira etxafuegoekin apurtu zituztenak.

BESTEKEKESANA

“ MCCn hogeita hamar urte daramatzat eta, zalantza barik, hauek dira une latzenak. Inoiz ez zait tokatu

antzeko egoerarik bizi izatea. Gure artean lana eta adiskidetasuna batera lantzen da, horregatik gertakizun hauen aurrean tristura eta mina oraindik handiagoak dira. Oso zaila da hain une gogorren aurrean erantzutea, baina ez dago beste aukerarik, lasaitu eta aurrera begiratu behar da.

Gorpuak berreskuratzeko hainbat egun behar izango ditugu; izan ere, ezbeharrak gertatu zen lekura jotzea ez omen da oso samurra. Egoeraren berri zehatza daukagunean, hiru bat egunera-edo, hildakoen senideek eta enpresako hainbat kidek osatutako talde bat joango da hara.

JESUS CATANIA
DIARIO VASCO/02-02-13

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Iparrari begira

Orain dela gutxi irakurri dudan artikuluko baten zioen gero eta nahaste psikologiko gehiago dagoela, eta honekin loturiko gaixotasun berriak sortzen ari direla. Gaixotasun berriak azaltzea ez da hain harritzekoa, gizadia bera ere garatzen doalako. Baina nahaste hauen sorrera estresean dagoela jakitean, usate dut galdera batzuk egin beharrean aurkitzen gara. Onartu al daiteke estresaren egoera haurrengan; nerabeta-sunean, fisikoa dela eta; heldutasunean, gure onena eman dugula eta?

Naturarekin zerikusia daukan ekologia defendatzea azkar ateratzen zaigu. Oso ondo iruditzen zait. Baina, zergatik erori hain erraz gizadiaren poluzioan? Zergatik uko egin osasun integralari? Askatasuna aldarrikatzen den aldi honetan, inoiz baino gehiago gizon-ema-kumeok bestearen esanetara jartzen gara; itxurakeria nagusitu da bizitzan. Guzti horrek egoera berrietara garamatza:

“Ez litzateke gaizki egongo barruan ditugun zaratak entzun, ordenan jarri eta erantzuna eskaintzen saiatzea”

personen arteko harremanak hotzagoak; presaka bizi gara, batetik bestera joanaz, baina nora jakin gabe; zarata, kontsumoa... gurekin ditugu; ahaztu egiten da denbora ondo erabiltzen eta ondo "galtzen"; isiltasunaren, bakardadearen aberastasanak ez dira ezagutu nahi,

beldurra ematen baitute. Honek guztiak itotasunera darama.

Egoera hauei eskaintzen ari garen erantzunek, askotan, areagotu egiten dute larritasuna. Inauteriak igaro dira, kanpoko neurrigabeko zaratari agur esan diogu, zorionez.

Ez litzateke gaizki egongo barruan ditugun zaratak entzun, ordenan jarri eta erantzuna eskaintzen saiatzea. Nahi izatea da inportanteena, zailtasuna ez da oztopoa. Uste dut erre-medio honek gaixotasun asko sendatuko lituzkeela eta egoera zail ugari konpondu. Zenbat eskertuko lukeen gizadiak gizakion osasuna! Gaur egun, bizitzen ikastea da erronka handiena, eta bizitzeko sortuak izan gara, ez hiltzeko bizirik.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagola Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Badator karapaixoa

Pasatu dira aretxabaletarrok hain estimatu ditugun jaiak: Aratusteak. Ederto pasatu genituen, gainera. Baten batek susto bat baino gehiago hartu zuen. Lehenengo Mad Max-eko pertsonaiekin eta gero Txinoaren hiletako kaxa desagertzean. A ze ezustekoa! Baina lasai, martitzeneko beste bat egin zuten eta. Domekan jakin zen, bestalde, primitiba nori tokatu zitzaion. Ezagun zen bai. Mercedes eta guzti etorri ziren, poltsikoak diruz gainezka. Probatu zenuten Crus de Gorbeari gaseosa? Egarrria asetzeko primerakoa.

Gazteak indartsu datozela erakutsi zuten. Gero eta ilusio handiagoa jartzen dute mozorroa prestatzen, eta hori ondo dago. Barazkiak, bakeroak, zerbitzariak... Gero eta sari gehiago, baina, hala ere, gehiago egongo balira... txarto ez.

Beste sari batzuk ere eman dira. Elkarrekin arteko mus txapelketa jokatu zen zapatuan. Aitor Irure eta Alejandro Ulezia Urbaltz elkarrekin ordezkariek izan ziren txapelduinak. Zorionak, bikote!

Orain, karapaixoaren txanda da. Amaponteko eta aitapontekoak karapaixoa oparitzen badizue, on egin. Txorizoa, arrautza, baserriko ogia, a ze jaki ederra! Ea norbait nitaz ere akordatzen den. Gustura hartuko nuke Garizumako oparitxoak.

M. J. Aretxaga

JAIK/ 'Mad Max' filma antzestu zuen mutil koadrilak eroan zuen nagusien kategoriako lehenengo saria

Giro ona eta jaia izan dira nagusi bai Aratuste domekan bai martitzenean ere



Eguraldi onak, herrikoek gain, kanpotar ugari ere erakarri zuen herriko kaleetara.



Ohiturari eutsiz, Txino Dantza egin zuten herriko neska-mutilek eguerdi partean.



Burrundara, kea eta usain txarra, behintzat, atera zuten Mad Max-eko mutilek.



Barazkiendako izan zen 16 urtetik beherakoen taldean eman zen lehenengo saria.



Txarangekin batera kalejira giroan egin zen manifestazioa herriko kaleetan zehar.



Martitzenean ere izan zen mozorrotu, dantzan egin eta ondo pasatzeko aukera.

Lubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA



BASTER ALDE jatetxea

SASOIKO JAKIAK GIRO ONENEAN!

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

OHITURA/ Inguruko herri askotan ohitura galdu egin da, baina gurean indarrean dago

Besoetakoari karapaixoa emaiosu Garizuma garaian

MIRARI ALTUBE

Aratusteetako mozerro eta gehiegikeriei agur esan genien Hausterre eguna etortzeaz bat. Eguaztenean sartu ginen Garizuman, eta hemendik eta Aste Santuetara bitartean karapaixoa oparitzeko garaia izango da, aitapontekoek besoetakoari oparia egiteko garaia.

Karapaixoa Garizuma garaian oparitzea kointzidentzia hutsa omen da. Antza denez, horrelaxe suertatu zen, kristautasunak eta erritu paganoek bat egin zutenean. Argi dago aspaldiko kontua dela ogi-opiltxo oparitzea, baina ohitura hori aldatuz joan da azken urteetan.

AMAPONTEKO-AITAPONTEKOEN OPARIA
Garai baten, baserri guztietan egiten zen karapaixoa eta ezkongaien artean oparitzen zen. Abadeari ere eroaten zitzaion, ez, ordea, besoetakoari. Gaur egun, bestalde, amapontekoak edo aita-pontekoak besoetakoari ematen dio. Bataiatzerako orduan besoetakoarekin hartu duen erantzukizuna onartu eta aurre egiten diola adierazten du oparitzo horrekin. Ohiturak dioenez, gainera, besoetakoak ezkondu artean egin behar zaio ogizko oparia.

HIRU ARRAUTZADUN OGIA

Urteek aurrera egin ahala, karapaixoaren itxura ere aldatuaz joan da, baita haren osagaiak ere. Berez, hiru puntadun ogia da, eta



MIRARI ALTUBE

Gaurko umeek ere gustura hartzen dute karapaixoa, bai ogizkoa bai bizkotxoakoa.

punta bakoitzean arrautza bat ezkututzen zaio. Azken urteetan, oster, beste osagai batzuk gehitu zaizkio, sagarrak, txorizoa eta urdaiazpikoa ere bai batzuetan. Gaur egun, oso baserri gutxitan egiten da, okindegiek eta gozotegiek hartu dute txanda. Horrela,

bada, bizkotxoak eta txokolatzeko arrautzez egindako karapaixoak ere barra-barra oparitzen dira.

Inguruko herri askotan karapaixoa oparitzeko ohitura galdu egin da, baina gurean oraindik asko oparitzen dira. Ea zuri ere jasotzea tokatzen zaizun.

TXUTXUMUTXUA



Elkarte arteko mus txapelketa Uratz Alden

Zapatuan jokatu zen urtero egiten den elkarte gastronomikoen arteko mus txapelketa. Aurten, Uratz Alde elkarteari tokatu zaio antolatzea, eta hantxe ibili ziren elkarte guztietako bikoteak norgehiagokan. Afaldu aurretik kanporaketak jokatu zituzten, eta, bapo afaldu ostean, finalerdiak eta finala izan ziren. Hordago artean ibili eta gero, azkenean Urbaltz elkarteko Aitor Irure eta Alejandro Ulezia izan ziren txapeldunak. Txapeldun ordeak berriz, Uratz Aldeko Legorburu eta Goio Arrieta. /M.A.

LABUR

Kepa Akixo aretxabaletarrak egurrean landutako irudiak jarri ditu ikusgai Bilbon

Joan den aspaldian Miarritzen bizi den Kepa Akixo Zigor aretxabaletarraren eskulturak ikusgai daude Bilboko Epelde & Mardaras galerian. Azken hogeitau urteotan egurrean landutako irudiak dira, eta eskultura askok loturaren inguruko gaia jorratzen dute. Ikusgai dagoen lanik zaharrenean, bestalde, *Aretxabaletako plazan* du izena, eta dantza baten irudia da. Norbaitek interesa baldin badauka, otsailaren 28a bitartean izango dira ikusgai Zigorren egurrezko artelanak Bilboko Epelde & Mardaras galerian.

Lie

**LURRINDEGIA
OPARI-DENDA**

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

**IZOTZ
Taberna**

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Jon Díaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

**URBALTZ
TABERNA**

**URBALTZ
taberna**

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

ESKIA

Murrukixo MEk eski irteera egingo du Luz Ardiden-era otsailaren 23an

Urtero egiten du eski irteera Frantziara, eta herritar ugari animatu izan da parte hartzera

MIRARI ALTUBE

Murrukixo Mendizale Elkarteak eski irteera antolatu du hilaren 23rako eta 24rako Frantziako Luz Ardiden-era. Urtero egiten du eski irteera, gehienetan, gainera, leku berera, eta herritar ugari animatu izan da mendizale elkarteak kideekin batera irteera egitera.

Eski denboraldiari bukaera emateko asmoarekin, Murrukixo MEk urtero antolatu ohi duen eski irteera egingo du otsailaren 23an. Eta joan gura duenak izena eman beharko du Murrukixoren lokaletan, martitzenetan, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

PREZIO BEREZIAK

Zapatuan irteno dira Murrukixoko kideak eta eskizaleak Luz Ardiden-erantz. Prezioaren barruan hau guztia sartu dute: bidaia, zapatuko afaria, lo egitea, domekako gosaria eta forfainen alokairua, seguru eta guzti. Era berean, hiru prezio jarri dituzte, norberaren egoerara egokituta: Murrukixoko ikasle diren bazkideek 75 euro ordaindu behar



ARTXIBOA

Iaz antolatu zen eski irteeran 70 lagun batu ziren eta lagun giroa izan zen nagusi.

dituzte, ikasle ez diren bazkideek, 80, eta bazkide ez direnek, 85.

Herritar ugari animatu izan da aurreko urteetan. Iaz, esate baterako, 70 lagun joan ziren. Murrukixoko kide Oier Etxebarriaren esanetan, "aurten 100

lagun etortzen badira ere, prest gaude. Jende gaztea etorri ohi denez, lagun giroa izaten da nagusi eta oso ondo pasatzen dugu". Eskia ez da Murrukixok gehien bultzatzen duen jarduerara, baina oso harrera ona izaten du.

FUTBITOA

Zapatuan hasiko da Arlutz tabernaren osteko kantxan jokatu den futbito txapelketa

Bederatzi taldek eman dute izena Arlutz taberna osteko kantxan jokatu den futbito txapelketan parte hartzeko. Gehienak aretxabaletarrak dira, eta zapatuan hasiko dira elkarren artean lehiatzen. Ordutegia eta partidu banaketa dagoeneko zehaztuta dago Arlutz tabernan. Maiatzaren erdialdera bitartean, zapatu gehienetan izango da zer ikusi Arlutz tabernaren osteko kantxan.

FUTBOLA

Galtzea tokatu zitzaion preferenteko taldeari zapatuan liderraren aurka jokatuako partidua

Preferenteko taldea eta Gazteen Euskal Ligako taldea izan ziren joan den asteburuan atsedenaldia izan ez zuten bakarrak. Preferenteko taldeari Elgoibarrera joatea egokitu zitzaion, liderraren aurka jokatzeko, eta galdu egin zuen. Aretxabaletarrak haserre agertu ziren epailearen lanarekin, besteak beste, lehen zatiko 20. minutuan David Canas UDAko jokalaria kalera bidali zuen-eta.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

UDA-Mutriku

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

Barakaldo-UDA

Gazteen Euskal Liga.

Zapatua. 18:15. Barakaldo.

PILOTA

Aretxabaleta-Hernani

Kadeteak.

Aretxab.(2)-Hernani

Aretxab.(1)-Bergara

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 17:30. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 1 UDA 0

Preferentea.

UDA 3 San Ignacio 2

Gazteen Euskal Liga.

Gainerako taldeek

atsedenaldia izan zuten aurreko

aste bukaeran.

PILOTA

Udaberriko Torneoa

Zurriola 22 Aretxabaleta 11

Kadeteak.

Andazpe 22 Aretxab. (2) 16

Murumendi 22 Aretxab. (1) 7

Lehenengo mailako gazteak.

Zazpitarri 22 Aretxab. (2) 14

Arrasateko 21 Aretxab. (1) 22

Seniorrak.



GOIESKOLA

ESKORIATZA-ARETXABAETA HEZKUNTZA PUBLIKOAREN IBILBIDEA

MATRIKULAZIO EPEA

Otsailaren 18tik Martxoaren 1era



Luis Ezeiza

Izaera ezberdinen errespetutik gure eskola hobetu egiten dugu.



Gastainadui, z/g
20540 Eskoriatza
Tfnoa.- Faxa: 943 714938
Posta-e: 012065aa@hezkuntza.net



Kurtzebarri BHI

12-16 urte bitartekoei egokitutako proiektua, gizartearen txertatua.



Santa Kurtz, 19
30 postakutza - 20550 Aretxabaleta
Tfnoa - Faxa: 943 795740
Posta-e: 012940aa@hezkuntza.net

Kurtzebarri Eskola

Eskola bizia, etorkizunari aurre egiteko prest.

Santa Kurtz, 19
30 postakutza
20550 Aretxabaleta
Tfnoa - Faxa: 943 790049



MUNDUTARRAKARETXABALETAN

LORENZO GONZÁLEZ

PINTOREA / MALAGA

“Hemen bezala, Andaluzian ere azentu arraroa dudala esaten didate guztiek”

AMAGOIA LASAGABASTER

Lorenzok berba egiterakoan duen azentua oso salataria da. Ahoa zabaltzarekin bat kontura daiteke ez dela hemen jaioa. Espainiako hegoaldekoa dirudi, Andaluziako. Eta horrelaxe da, Lorenzo González Malagan jaioa da, Periana izeneko herri txiki baten.

Azentuarena oso gauza bitxia da benetan. Izan ere, Lorenzo Gonzálezek zortzi urte besterik ez zuenean utzi zuen jaioterria. Horrek esan nahi du azken 40 urteetan hementxe bizi izan dela. Hala ere, ez du berba egiteko modua aldatu, baina hori hemen bakarrik igartzen zaio: “Malagara joaten naizenean, hangoek esaten didate nire berba egiteko modua ez dela guztiz Andaluziarra; hortaz, bi herriotan ere nire azentua ez dela oso ohikoa onartu beharra daukat”.

Lorenzok ez du herriminik sentitzen. Hemen ezkondu zen, eta hemen osatu du familia: “Ni hemen goa naiz, oso barneratuak ditut hemengo ohitu-


rak, eta euskaraz oraindik barbarik ez egin arren, ulertu, behintzat, dena ulertzen dut”.

Lorenzori, baina, hemengo ohiturak gustatu arren, Andaluziako bat ere ez du sekula gal-

“Urtero, Malagarainoko bidaia bat Aste Santuetan egiten dugu”

tzen. “Urtero itzultzen naiz Malagara, lau bat aldiz, eta horietako bidaia bat Aste Santuetan egiten dugu. Errespetu handia diet Andaluziako Aste Santuei, eta hango prozesioak ikustea ikaragarri gustatzen zait, egun handiak dira”.

Gure protagonistak harro onartu digu orain dela hogeita zazpi urte emaztearekin ezkondu zenean etorri zela Aretxabaletara bizi izatera. Ordutik hona, Portasol aldean bizi da, oso gustura.



HURRETIK



Bego Lekunberri

Abeslarixe eta irakaslie

Etetik datorkixo Begori kanturako eta musikarako afiziñue. Aittek sekulako sormena daukola onartu dusku, eta harek egindako abesti eta kantuek abesten dittu Begok gustora.

Abeslarixe, afiziñoz ala ofizioz?

Gauzak afiziñoz hasi eta ofizio bihurtu leikie. Hala eta be, momentuz afiziñue besterik ez da.

Diskue atara dozue oin dala gutxi.

Bai. Shot estudixuetan hamaika bat abesti grabau geuen, eta Bego izeneko CD baten batu dittugu. Ixe zuzenekue da, kantu danak egun bakarrien grabau gittuen-eta.

Zenbat disko kaleratu dittuzue oin arte?

Asko, baiñe gehixenak maketa estilokuek izen die.

Kantuetako letrak nork asmaketan dittu?

Batzuk beste kantu batzuen bertsinuek die, baina gehixenak nire aittak idazten dittu. Egixe esan biher badot aitta sormen iturri agortezina da.

Ludi berri taldeko partaide be bazarra. Nundik dator izen hori?

Gure aittek ataratakue da, eta “mundu berri”-ren sinonimo bat dala esan geike. Abeslari bat edo gustoko talde bat? Aretha Franklin, Joan Báez... Gehixenbat emakumien ahotsa gustetan jat, biherbada hurbillago sentiduten nazelako eurenandik.

Gorroto dozun musika mota bat?

Gorroto, bat be ez, baiñe gaur egun egi-tten dan musikie ez jat askorik gustetan, heavyxe, esaterako.

Jarraiketan dozu Operación triunfo? Ez. Gaiñera, programa horrek lotsatu eragitten nau.

Dutxa peien abesten dozu?

Bai, jente askok moduen, ezta?

A.L.

NIREBIDAIAHURA/ Kepa Mendieta

Costa Ricara / 2001eko irailan

H amabost eguneko bidaia egin zuten Costa Ricara Kepak eta emazteak. Ez zuten bidaia agentziek beti eskaintzen duten bidaia tipikoa gura, zerbait desberdina nahi zuten, baita topatu ere. Abenturazko bidaia egin zuten. “Hondartza ugari dago hemen inguruan ere; gu abentura bila joan ginen”.

Costa Ricako hiru eskualdetan izan ziren, batik bat.

Ekialdeko gunean, parke natural handi baten barrena ibili ziren, kanoan. Han, besteak beste, dortoka handiak ikusi zituzten. “Oso esperientzia polita izan zen, dortokak arrautzak egiteko garaian zeuden eta gaez prozesu horretan ikusten genituen”. Gero, Pazifikoko aldera egin zuten, hegoaldera. Han pixka bat lasaitu eta egun bakar batzuk hartu zituzten atsedenerako.

Azkenik, beste parke natural batera abiatu ziren. Parke hartan abenturazko kirolak egin zituzten: rafting-a, zuhaitzetatik sokan behera jaitsierak... Horrez gain, parke natural haietan beste herrialde bateko fauna eta flora ezagutu zuten.

Horrela kontatuta badirudi bidaia estresagarria izan zela, baina Kepak kontrakoa esan digu. “Jarduera ugari egin ditugu, baina gauzak oso lasai hartuta, ez dugu ezertarako presarik izan”. Hori bai, goizean goiz jaikitzen ziren, bostak aldera. “Costa Rican azkar argitzen du egunak, horregatik goiz jaikitzen ginen, eta, jakina, gero goiz joaten ginen ohera”.

Klimari dagokionez ere ez zuten arazorik izan: “Ilunkaran euria egiten zuen, baina bero handirik, behintzat, ez genuen pasatu”.

Kepak eta emazteak, jaioterritik urrun ibili arren, euskaldunekin topo egin zuten: “Zaila dirudien arren, han Debako eta Hondarribiko lagunak egin genituen”

A.L.




Costa Rican abentura ugari bizi izan zituzten Kepak eta Itziarrek.



“Jarduera ugari egin genituen, baina guztia lasai hartuta”

“Bidaian Debako eta Hondarribiko lagunak egin genituen”



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

Lezama
BIDEO KLUBA

Zure gustoko zinema!

Santa Kurtz 24
ARETXABALETA
943 79 33 95

J.J.
IRURE
ITURBINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 15a / 68. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Urdailardero ziriekin eta basoko Kukumarruekin agur esan zaio neguari

AINTZANE GARDOKI

Urdailardero egunean, herriko ehunka ume ibili zen etxez etxe kantari eta eskean, ziria janariz betetzeko.

Zapatu gauean, koadrila bat baino gehiago mozorroa jantzita ibili zen herrian.

MARTITZENEAN, JAI EK AURRERA

Txikienendako jaialdia goizean hasi zen. Txistorra bapo jan eta gero, Kukumarruei egin zieten agur. Haiek, urtea basoan eman ondoren, herritarrak izutzeraz hurreratu ziren herrira.

*Kukumarruek,
aurten ere, herriko
kaleetan gazte eta
nagusiak izutu
dituzte*

*Neguko janari
eskasiari amaiera
eman guran,
ziriarekin eskean
ibili dira umeak*



Kukumarruak basotik jaitsi ziren martitzen arratsaldean.



Txikienek ziriak janariz beteta zituzten Urdailardero egunean.



Zirietako janaria jan ondoren, txistorraz gozatzeko aukera izan zen.



Zapatu gauean koadrila ugari ibili ziren mozorrotuta.



Arabiarrak ere ez ziren herrian falta izan.



Zahartxoek ere pirataekin bat eginda Inauteriaz disfrutatuta

GIZARTEA

Juan Maria Uriarte gotzaina gurean izan da martitzenaz geroztik

AINZANE GARDOKI

Martitzen goizean etorri zen Juan Maria Uriarte gotzaina Eskoriatzara, eta hemen izango da domekara arte. "Oso agenda estua dauka gotzainak betetzeko. Gure herriko eta Gatzagako hainbat talde eta elkarterekin batuko da, gotzainak berak gure herrietako errealitatea ezagutu nahi du-eta", azaldu digu Eskoriatzako parroko Xabier Gómezek.

Heldu bezain laster, zaharren egoitza bisitatu zuen gotzainak. Hango mojekin eta gaixoekin batu zen Gatzagara joan aurretik. Auzoetako eliztarrekin izan da han eta hemen, gaixoak ere bisitatu ditu eta Unibertsitatean ere topaketak egin ditu ikasleekin eta irakasleekin. Horrez gain, gotzainak batzarrak izan ditu parrokiako batzorde pastoralarekin,

"Elkar ezagutzea du helburu bisitaldi honek, gure kristau elkarteak animatu eta bizkortzea"

katekesian ari diren umeen gurasoekin eta Alkoholiko Anonimoen elkarteko kideekin, besteak beste. Harekin bakarka egoteko aukera ere eman die herritarrei, eta domekan, kafe-tertulian batu da herriko gazteekin.

"Herria eta herritarrak ezagutu eta elkarrekin egoera azterteaz gain, egin beharreko pausoak aztertuko ditugu elkarrekin", dio Xabier Gómezek.




Juan Maria Uriarte iganderarte izango da gure artean

AINZANE GARDOKI



Luis Ezeiza Herri Ikastetxean amaitu dute urtarrilean hasitako Hamabostaldi Kulturala

Urtarrilaren 28az geroztik, denetarik izan dute Luis Ezeiza ikastetxeko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek: idazleen berbaldiak, tailerrak, ipuin kontaketak, antzerkiak eta ikastaroak, besteak beste. Hamabostaldia amaitzeko, Txan magoaren magia disfrutatzeko aukera izan zuten ikasleek. /A.G.



Patxi Zubizarreta idazlea ALMENE izan zen, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz

Joan de asteen, eta umeengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko helburuarekin, Patxi Zubizarreta idazlea ALMENEko 3. eta 4. mailako ikasleekin izan zen. Umetatik bizi izan dituen gorabeherak kontatu zizkien umeei. Ikasleek galderaz josi zuten Zubizarreta. Gustura ibili ziren bai idazlea eta bai ikasleak ere. /A.G.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospital. (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

'DULCE PUTA' ANTZERKI-LANA

Carlos Valls idazlearen *Dulce puta* antzerki-lana Unibertsitateko areto nagusian gaur, hilak 15, 22:30ean. Itziar Lazkano aktoreak emagaldu baten bizipenak kontatuko ditu ordu eta erdi iraungo duen bakarriketan.

PILOTA PARTIDUAK

Bihar, zapatua, arratsaldeko seietan, eta lau t'erdiko txapelketaren barruan, Retegi VII.a Errandonea III.aren aurka arituko da. Eta gero, Otaegik eta Inurrategik Etxaniz III.aren eta Galartza IV.aren aurka jokatu dute.

AXTROKIRENAGENDA

IRATI ZUBIZARRETA

Aste honetatik aurrera, Irati Zubizarreta da Tortolis ludotekako laguntzaile berria. Gogoratu, bestalde, dinamizatzaile-kudeatzaile lanpostura aurkezteko epea gaur bukatzen dela.

aroztegia leniz

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingerugardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

BEIRALAN

KRISTALDEGIA

- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak egiten ditugu

Lantokia eta Erakusketa: Herriko Plaza, 8
Tfnoa.-Faxa: 943 78 81 78
20560 ARETXABALETA

Ume jolasak eta herri afaria izan dira herriko Aratusteetako protagonistak

AINTZANE GARDOKI

Gatzagan txikienak izan dira beti Aratusteetako protagonistak. Duela makina bat urte, herriko emakume batzuk gizonez mozorrotu ziren eta itzeleko iskanbila sortu omen zuten herrian. Aurtan, berriz, mexikar, punki, deabru eta moja ugari ibili da kalean gora kalean behera. Txikitxoek izan ziren lehenak jaiei hasiera ematen, Urdailardero egunarekin. Zapatuan, berriz, lehenengo ume jolasak izan ziren eta gero herri afaria egin zuten herritarrek. Giro polita izan zen herrian.



Gaztetxoek ere parte hartu zuten herri afarian.



Mojak Drakulari eta igerilariari agindu bat baino gehiago eman zien afal orduan.

Txikitxoek eman zieten hasiera Aratusteei, Urdailarderoekin, eguen gizenean



Herriko arabiarrek ardoa edateko arazorik ez nonbait.

Emakume talde bat gizonez mozorrotu zen aspaldi, eta itzela sortu omen zen herrian



Txikienak izan ziren Urdailardero egunean Inauteriak ospatzen lehenak.



Indioa eta bufoia ere afaldu ondoren gustora aritu ziren dantzan.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

COMPOSTELA
Taberna

Olagarro
espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70



Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20




Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

PAUSOKA HAUR ESKOLA

2002-2003 ikasturterako izena emateko epea zabalik

Izena ematea: otsailaren 18tik martxoaren 1era
09:30etik 11:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
OTALORA, 27an GAUDE. 943 77 03 77



TALDE EGOKITUAK

- Otiak 3 urtera bitarteko haurrak talde egokietan

ORDUTEGI ZABALA

- Goizeko 7:30etik 18:00ak arte
- Ordutegia moldatzeko aukera


JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.

LOGELA



IKASTURTE BERRIA, ETXE BERRIA

Hemendik aurrera,
Belorrieta 8an egongo gara!

PAUSOKA HAUR ESKOLA

Euskaraz hazi eta hezi



X-TRAIL BERRIA

- ALL MODE 4X4 TRAKZIO
- SISTEMA ELEKTRONIKOA
- 4 AIRBAG
- ABS.EBD (BALAZTATZEAREN BANAKETA ELEKTRONIKOA)
- NISSAN BRAKE ASSIST.
- EPS+ (EGONKORTASUNAREN KONTROL ELEKTRONIKOA. GASOLINAKOAK BAKARRIK).
- 4 DISKOZKO BALAZTA.
- XXL EGUZKI-SABAI PANORAMIKOA.
- MALETATEGIA HANDIA DA ETA GARBI DAITEKE.
- BI MOTOR MODERNO:
- 2.2L COMMON.RAIL T-DIESEL
- INTERCOOLER 6 MARTXAKO.
- 2.0L 16V., GASOLINA (MARTXAK ALDATZEKO ESKUZ EDO AUTOMATIKOKI)

-TREME LIFE



23.594,00 €-tik
aurrera*

SEE THE CHANGE

3 URTEKO
BERMEA

EDO 100.000 KM.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate